# "Euzko-Deya„'ren idaztijak

*Datoren zenbakijagaz batera arťuko edo-dabe geure ařpidedunak, aurtengo lenengo idaztija. Orain-ařte argitaldu doguzanak baño apaindub***agua, poliťagua** *ta atsegingařijagua ixango da. Euzkera eraz-***erazaz idatziťa** *dago, edonok ulertzeko eraz, ta alik garbijen. Ziuř-ziur gagoz atsegin ixango yakela geure ařpidedunai.*

*Zain, ba, datoren zenbakijari begira.*

# Artzain baten edestija

Artzain bat mendi-mendijan
zaindúten ardixubak
pozik zan, aspaldiko ařen
iďuten oso-artian;
eduřa mendijan zala,
baňa eurzki beraz
naiz negubau, naiz udean,
bera zan zoruntsuba.
Ule zuridun artzaña
berarekin bixi-zan;
antziňeko jazokunak
edesten eutsazana.
Zoruntsu zan artzaintxuba,
azke-azke zan-eta;
ezeban beste jauberik
Urtzi baño, on utza.

. . . . . . . . . . . .

Bein mendijan gixon batek
artzaña idoro eban
ta gixon aberats ari
begikua ixan yakan.
—Nirekin uřia juan
gura-dok, artzaintxuba?
Antxe nire jauregiñan
oparo bixiko az;
emengo otza gosia
eztozak ixango an.—
Artzaintxuba zoratuta
bayetz esan eban, ba,
eta artzain zaňa lagatzen
jauregira jatsi zan.

. . . . . . . . . . . .

¡Gixaxua! Jauregijan
oparo bixi-ixan zan,
baña bere azkatasuna
betiko galdu eban.
Mendijan jaube bakařa
Urtzi eban gaxuak
eta urijan danak ziran
beretzat jabe uzubak.
Eta bařiro mendira
bigurtu gura-ixan zan,
baña bere ugazabeak
juten galazo eutsan.

. . . . . . . . . . . .

Lasteř artzaintxu zoruna
iñun-iñunez il zan;
ta mendijan artzain zaňa
erail eban otsuak.

*Aizkibel'dař Bingen.*

Ikastolean:

Zengana nator, gaur eskolara ezin dodala etoři zeuri esateko—dirautso Astakilokumak bere maisuari.

—¿Etoři ez? ¿Zegaitik ba?

—Eurija dalako.

Esopo, 2.400 urtetik ona geure gogian dankagun ipuin-esale ospetsu on, lopu (esclavo) ixan zi-zan bere gastetan.

# EUZKELDUN NESKATILAI

## NESKATIL-EREDUBAK

Jakin gura ba-dozube zelako etxekanderea ixango dan gero neska gaste bat, azterkari egixube ezkaratzan dagonian: eta zeregin apal onetan iñarduňaz lotsatuten ezpa-da, ziuř esan leteke sentzuna daula.

Ontzi baten loriak atonduten ikusten ba-dozube, aulkijak eta eredixak *(etxe-trastiak)*, ondo ta egoki bere lekuban ipinten, neska ori etxekoya da, ezta jairik-jai ibiliko, etxe-jabia ixango da.

Eredu au idazle ospetsu bategandik artu dot eta orain edestu edo kontako dautzubet neuk beřola ikusi nebana:

Andera bat neukin eguan aizkidien etxe baten; neuk itandu neutson ia zegaitik azterkatuten ebazan ain sakonkiro geure auřez igaroten ziran neskatilak. Berak erantzun eustan: «Seme ezkongai bat daukot eta neure neurrijak artzen dodaz».—Neuk orduban itandu neutson zer atara eban azterketatik eta erantzun eustan:

«Laure, ain polit eta aberatsa, etxai atsegin, ařua dauko; andikitzat dauko bere buruba ta ori txařto dago neskatil bategan. Entzun dautsot bere ameari egin dautson erantzun ezeskarija ta orek erakusten dau bere bijotz gogoria. Laure'k uste edo-dau ondo esanak erabiři biař-dirala etxekuak eztirarentzakin bakarik; oker andija ta gauřko egunian zabal-zabalduba.»

«Miren auřkeztu zan bein bazkal-orduban idunekuan botoirik ezeukala, ta neuk iři-barez begiratzen neban zelako alegiñak egiten ebazan uts ori estaldu gurariz korapilo bategaz. Bata beste baten uařtu neutson bere jakiaren eskumutuřa ořatz bategaz lotuta eroyala. Eta askotan bere esku-zořuak zulatuta erabiltzen dauz. Neuk jokatuko neuke, Miren neskatil ardurabakua dala.»

«Paule'ren iñardun bakara, bere jauzkerea da. Bere parpala *(puntila)*, morapilo, ta azkengo jauzkereatzaz baño eztaki itz-egiten. Paule'k ezin dau gela baten sartu izpilura begiratu-barik. Onek, gustijok erakusten dabe bere buruba ařegi maite-daula».

«Edurne, jakintsuba ta alaya da; baña iřikarija (burlona) ta gustijoen utsak ataraten zalia. Neuk ikusi dot Edurne atso eřen gaxo bati iři-egiten, eta ori bijotz-bakua ixatia da. Neskatil on batek eztau iñoz geide edo ***projimuatzaz*** iririk egiñea».

«Terese samur ta ona, ezta, urian, bere aizkide batzuk baxen jakintsu ta poliña; baña bijotz biguna dauko. Bere ixakerea beti bardiña da: oso apala. Bera bigundasuna beti agiri da, bere ondasunaz batera. Etxian, kalian, edonun eta edonogaz matagaři ixatia da bere iñardun bakara. Bere amama zainduten dau pozkari: besua emoten dautsa zurubi edo eskileratik jasteko; aulkija ureratzen dautsa jesaři gura-daunian... Neskatil ain ona, emakume ona ixango da, noski. Oregaitik Terese da neure autetsija.»

*Etxakin.*

1913'gko. Otsaila-8'gan *Gipuzkoura*'ren azkenengo zenbakija (lumeria) argitaldu zan.

# USUA

Uso txori edeřa
goiz batean
zutik ařkitu nuben
nere gelan;
ta alaiťasun aundiaz
bere eleaz
zion: «Ni Euzkadi'ra
nua egaz».

Negař samin ayezka
ura aiturik
irtetzen zat ibaika
begiťatik
beste eři txař batean
ařkiturik
eta uřun amatxuan
mal gozotik.

Gero nik usoari
diot ola:
«Nere negař ayezkan
eresia
zurekin eramaizu
Euzkadi'ra
eta abestu zayozu
belařira».

Urundu zan nigandik
usotxua
nere abestiarekin
Euzkadi'ra

. . . . . . . . . . . .
. . . . . . . . . . . .

¡ta ni ezin juanik
amagana!

*Ařgain'dař Eneko.*

**Rousse ta lagunak**

*Ledesma*-15'ka. 1458'g. *urutizkiña (telefonua)*

Ikatz eta patata-biltegi andijak. Batez-be ereteko patatak.